

Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 20. zbkia. 1996ko urtarrila. 200 pzta.



Zenbaki berezia:
200 pezeta

95eko
urtekaria
barruan

Igor Beristain *Euskadiko Txapeldun*

Gaztedia

Gazte
Batzordearen
Larrauleko
egonaldia

Elkarrizketa

Unai
Zinkunegi,
Mexikotik
Floridara

Zumaiako Fototekak
utzitako argazkia




"BARBERO" PEDALEI ERAGITEN

Ikusten al dezue
Igor Beristaini
bizikletan ibiltzen
erakutsi ziona?
Ezagutzen al dezue?
Jesus Mari Irureta da,
"Barberito", gazte
denboran, guapo-guapo.
Kopilotoa, berriz, Garate
da. Noizkoa den ez dakigu,
baina han datoz biak
Txortenaneko aldapan behera,
belozidadean. Besoan zer ote zuen?
Hor goitik erorita egindako
aberiaren bat akaso?

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ZUMAIako INSTITUTUA
Aita Mari Auzategia, z/g
20750 - ZUMAIA
86 08-09/86 08 10

Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE
HERRIALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea
tfnoa: 86 10 56
faxes: 861742

**argitaratzailea
ZUMAIAKO
GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

**Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Eneko Dorronsoro
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta
Juan Luis Romatet**

Kolaboratzaileak

**G.E.G., Natur taldea, Miriam
Romatet, Kepa Aizpurua,
Aintzane eta konpainia, Imanol
Manterola, Itxaso Urruzuno, Jon
Manzisor, Dani Carballo, Josu
Egaña eta Arantxa Eizagirre,
Luis Mari Aizpurua, e.a.**

publizitatea
861056 tlf.
inprimategia
Gertu Koop. E.
(Zubillaga - Oñati)

tirada: 800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

**BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.**



*Iratxe
eta
Esther*

**Kaxildan
kontuak**

- Aizu Esther! Zer eskatzen diozu urte berriari?
- Ez dakit ba ... Eta zuk Iratxe?
- Galderak erreza ematen du, baina ... Erribera kaletik entzun det marmar bat:

" - Aizan Kaxilda, hik zer eskatzen dion urte berriari?
- Hasteko gizona laga behar dinat, hurrengo mendea oso hurbil zion eta modernizatzen hasi beharra zeukanat. Ez pentsa Maria Luisak Joxe Mariri aguantatzen dion modura pasako dinatenik urte guztia. Gizona laga ondoren kotxetxo bat erosiko dinat, Muingo, Kuingo edo Tuingo edo .. bada ba? Izan ere Paola gero ta luzio zion eta hara iristeko gutxienez bizikleta bat beharko dinat. Osasuna ere eskatuko zionat 1996ari. Ah! Eta hori bai, alaitasuna! Izan ere garai hauetan depresioak ikaragarri zabaltzen ditun, gripearen moduan ...

Bueno Juanita, gustora natxion berriketa batian hirekin, baina urte honetako garrantzitsuena ahaztu baino lehen banatxian Baleiken harpidetza egitera!"

**Urtarrilean hasiko
dira ikastetxe berria
eraikitzen 6. orr.**



**Kultura
Edorta Jimenez
eta Imanol
Azkue, Julene
Azpeitiako
irabazleak.. 8. orr.**



**Ze berri?
Gurutze Gorriaren
larrialdi zerbitzua
kendu dute 7. orria**



Eta portadan, Igor Beristain Euskadiko txapeldun 23. orr.



**PREMIAZKO
TELEFONOAK:**

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

Zumaiako errege eta Espainiako alkate

Jon Maia

Tabernara bakarrik sartu nintzen eta nora begiratu ez nekielarik, "Diario Vasco" ireki nuen eta orriak pasatzeari ekin nion, arin, halako orri batera heldu nintzenez, tripetan "labadora" martxan jarri zitzaidan arte: "El rey se interesa por los proyectos del puerto de Zumaia y ...". Nahikoa. Rewing. Berriz, ea ondo irakurri dudan "El rey... Zumaia y...". Rewing, play. Ea, berriz; bai, horixe jartzen du. Labadoraren martxa bizkortzen hasten zait, zentrifugatze faseraino. Azpian, sinistu ezin zuena-rentzat, froga, argazkia: Zumaiako alkatea Espainiako erregearen ondoan "maketa" bati begira biak, biak, ai ama.

Argazkia, rewing. Bai, halaxe da, biak ondoan. Zumaiako alkatea Espainiako erregearekin gustura dagoenaren irribarre interesatuarekin, bere lana betetzen. Bartzelonan, Espainiako erregearen ondoan. Zumaiako alkatea, nere alkate jauna, gure herriaren ordezkari gorenena. Ai ama! herrian ere, marmario bera izan zen guztion ahotan, barreak eta txisteak, amorrua eta lotsa. Lotsa. Eta beldurra.

Kolonialismoaren estilo egiatzkoenaren irudia zen hura. Sinistu gorputzean hotzikara bat sentitu nuela. "Noraino heltzeko kapaz ote dira hauek?" pentsatu nuen. Neurri horretaraino makurtu behar al da Euskal Herria? "Diario Vasco"ren orri horretan ez zegoen notiziari, han ez zen ezer berezirik gertatu, titularrean jartzen zuenez, notizia, erregea gure herri txiki honen proiektuaz interesatu zela izan zen. Azken finean eta nahiko nabarmen, portuaren proiektu ofizialarentzat propaganda, kobertura, eta proiektuak duen indarraren eta babesaren erakustaldia zen hura, horren bila joan zen gure alkatea

Bartzelonara; eta horren trukean Euskal Herriaren menpekotasunaren adibide berri bat ere bazen. Ez nuke nik adibide horren protagonista izan nahi. Ez horixe. Erregearen irribarra azaldu beharra nere helburuak betetzeko. Ez mesedez. Logikaz, haxe hausnartu nuen notizia horren aurrean: Zumaiako etorkizunaren eraikuntzan "barrikadaren" alde batera herritar multzo bat gaude, herritarrak. "Barrikadaren" beste aldean: herritarrak, alkatea, estamentu ofizialak, eta auskalo zenbat interesatuen artean, erregea. Bai, sinbolikoki bada ere Espainiako erregea ere bai. Bizitzaren bidegurutze

hauetan ikusten da bakoitza non dagoen. Urtetan gure alkateak ez du Zumaiako natur taldearekin hitz egiteko borondaterik izan, mesprezua izan da bere jarrera; biltzerik ere ez du nahi izan urtetan, bildu hitz egiteko, eztabaidatzeko, kontrastatzeko, keba... Boikotera ere heldu izan da irratiko mahainguru batera ez joanaz besteak joango baziren. Urtetan bere herritarren multzo batekin. Zumaiako etorkizunaz kezkatuturik dauden bere herritarren multzo batekin jarrera diktatoriala eta intransigentea izan duenak, espainiarren erregearengana jotzen du eta gure herriaren proiektuaz interesatua dagoela esaten digu bere mezulariak.

Zein errege zaren zure herritarrekin eta zein bufoi zure erregearekin, Ricardo. Hara zu zure kontzientziarekin. Kontu honetan behintzat dirudizu Zumaiako errege eta Espainiako alkate.

Orain badakigu, "Bribon IV"-ak izango duela leku bat gure herriko portuan, zure beleroaren ondoan, badakizu non, orain zisneek atsedean hartzen duten leku berean. ■



HARAGITEGIKO, 15-1. TEL: 86 21 16

kukutz
SERIGRAFIA

- ★ KAMISETAK
- ★ KAPELAK
- ★ TXISKEROAK
- ★ TXANDALAK
- ★ PAPELEZKO POLTSAK

Narrondo 8, 2. esk Tfnoa: 860569

Erribera Kalea, 6
Telefona: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



JOSEFRAN

Zumaieraren bila HIKA-HITANO

Esan beharrik ere ez dago 'hika' euskarak bere-berezkoa duenik. Geure "bantuari" hizkera aseptikoa eta graziarik gabea dela leporatzen diogunean, besteak beste hikaren moduko elementu adierazkorra eta naturalaren gabeziak ari gara.

Hirurogei hamarkadaz geroztik gure inguruko erderetan errespetuzko formen kaltetan kidetasun trataerak gero eta gutxiago erabiltzeko joera nabaria izan da, (usted eta vous trataeren ordez tu erabiltzea, alegia). Gurean, ordea, hizkuntzaren itxura normalizatzeko garai horietan alderantziz gertatu da: 'zuka' erabat nagusitu da 'hika' ia-ia desagertuaraziz.

Faktore askok jokatu dute 'hikaren' galeran. Batzuek nahi izan duten arabera euskara bera erdararen ondoan "basarritar burugogorraren eta arrantzale builosoen" eta kulturarik gabekoen hizkuntza ulergaitza izanik, kultura delako hori desiratzen zuten euskaldun askok sinetsi ere egin zuten euskara ez baina 'hika' zela hizkera zatarra eta gaizto hori. Ospe txar hori noizkoa den zehazki ez badakigu ere, jakina da jatorrizkoa ez dela. Izan ere, Leizarragak, Bibliaren lehen euskaratzaileak, Jainkoari adiskidearen 'hikaz' egiten zion. Eta hala "telediarioko" hizkera euskaraz behar izan dugunean 'zuka' aukeratu dugu trataera normala horixe delakoan. Orain, ordea, "telediarioko" hizkera bertatik atera eta eskolara, kalera eta etxera ekarri eta 'hika' baztertu ondoren "Goenkale" eta horrelakoetan berreskuratzen saiatzen gara. Dena dela, nire iritziz dexente aldatu da 'hikaren' balioa, gaurregun kalean batez ere mutilen artean ahoa bete-bete eginda aditzen den 'hika' nabarmen, faltsu eta oker hori ez da berezkoa. Jatorra delakoan, askotan hizkuntzaren balio sinbolikoaren ondorio eta adierazgarri (folkloriko) baino ez da. Beraz, ikastarotxoan 'hika' norekin, noiz eta nola erabili behar den ikasiko dugu.

Bada, ordea, beste faktorerik trataera honen galeran. Frantsesa, gaztelania eta hainbat hizkuntzen ikuspuntutik euskara zaila eta aldrebesa bada, are zaila eta aldrebesagoa 'hikaz' egitea. Euskararen sena galdu ez, edo berreskuratu dugunontzat, ordea, ez da hori horrela. Hala, euskarak indartsu iraun duen tokietan 'hikak' ere bizi-bizirik iraun du. Aditz formen oparotasunak berez inolako zailtasunik suposatu gabe hizkuntzaren elementurik biziena, adierazgarriena eta emankorrena izan da. Eta nola adierazi aldrebesa ez denik? Hika-hitanozko aditzak erabat sistematikoak dira. Sistematizazio horixe ikasiko dugu Euskaltzaindiak erabakitako formetan eta gure guraso eta aiton-amonengana joko dugu zumaierazko formen sistematizazioaren bila. Bestalde, dakienak esango du txukun eta garbi hitzegiteko ez dela derrigorrez 'zuka' egin behar. Beraz, normalean 'hika' deitzen dugun hori eta "jitano" edo hitano delako hori bereizten ikasiko dugu, hala nola gizonezko zein emakumezkoekiko formak ere.

Maitasun kontuetan ere hika-hitanoa erabili behar den ala ez ere aztertuko dugu. Izan ere, goian aipatu bezala, beti mesprezua edo humorea adierazi beharrean, hika-hitanoz baliatuz besteak beste elkartasuna, berdintasuna edo parekotasuna, adiskidetasuna, konfidantza eta konplizidatea ere adieraz daitezke.

Angula



Felix Aizpurua

Gabonetan angula asko saltzen denez gulak sartzen dituzte angularen ordez angula erosteko bazaude humorez garantia nabarmen hor daukazu errez begirik ba ote dun konturatu zaitetz

Zumaiarrak dabilta hortan nahiko fuerte Txanton, Gorosti eta beste horrenbeste Hauen artean jefe Banderas ta Kike "Alerikan etziok" esaten digute nongo zuloan dauden ederki dakite!



BELARDENDA
SIWA



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

ITZURUN
K
KIROLAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA

512 milioi ikastetxe berria eraikitzeko

Abenduaren hasieran Euskal Herriko boletinean azaldu zen iragarkiaren arabera, Herri Eskolaren eraikuntza berria egiteko lanen lehiaketareko deialdia egiten zen.

Lan garrantzitsu hauek egiteko epea 20 hilabetekoa izango dela zehazten zen eta aurrekontua era honetan banatzen da. 5 milioi 1995erako, 318 milioi aurtengorako eta gainontzeko beste 189ak 1997rako.


Seguruena urtarrilean bertan hasiko direla eraiketa lanekin, eta ikastetxe berri honetan Lehen Hezkuntzako 2.zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak bilduko dira. Era honetan gaztetxoek Julene Azpeitian arituko dira ikasten, 16 urte bitartekoak ikastetxe berrian, eta beste bi urtez ikasten jarraitu nahi dutenek Zumaiako Institutuan izango dute horretarako aukera.



Bi urte barru dena bukatuta egon behar luke

Era honetan laster 18 urterainoko irakaskuntza publiko guztia D ereduan emango, hau da, dena euskaraz.

Ikastetxe berria Aita Mari futbol zelaiaren ondoan eraikiko da, institutuaren aurrez aurre, gaur egun anexoa dagoen eremu horretan. 1998an sartzeko inguru honek itxura zeharo ezberdina izango du, ikastetxearen ondoan, gainera, kirol instalakuntza berriak egiteko asmoa ere hor dagoelako: tenis kanpoak, e.a. ■



IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ZUMEA
TABERNA

Erribera kalea, 2
Telefona: 861125

ZUMAIA

Endaiole Zumaiako

Embera, 8
Telefona: 861694

- * SUKALDERAKO ALTZARIAK
- * ELEKTROGAILUAK
- * BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Osasun larrialdietarako zerbitzua aldatu dute

Udalak lehen Gurutze Gorriak eskeintzen zuten Larrialdietarako zerbitzu hau kentzea erabaki du, oso garestia izateaz gain jendea larrialdiak ez zirenean ere erabiltzen hasia zelako.

Urtarrilaren 1etik aurrera, lanegunetan arratsaldeko 5etatik hurrengo eguneko 9ak bitartean, eta igande eta jaiegunetan egun osoz, osasun larrialdietaz Osakidetza arduratuko da, etxez etxeko bisitaldi programaren bidez.

Horretarako honako telefono hauetara deitu beharko da:

088 edo 461111

Duela hiru urte inguru, edozein larrialdi izanda ere jendeak Zarautza joan beharra izaten zuela ikusita, Gurutze Gorriarekin batera zerbitzu hau jartzea erabaki zuten Zumaiako Udalak.



Sendaketa ugari egin dituzte Gurutze Gorrian.

Urte hauetan sendaketa ugari egin ditu, urteko 2.000 inguru hain zuzen ere. Sei mediku inguru izan dira txandan-txandan zerbitzu hau bete dutenak, eta zalantzarik gabe lan oso ona egin dute.

Zerbitzu hau behin-behinekoa zen, ordea, eta orain Osakidetzak beharrezkoa denean etxez etxeko zerbitzua eskeiniko duenez, lehengo zerbitzua ezabatzea erabaki du Udalak. ■

Astileroeak beste enkargu haundi bat jaso dute



Wiron-1 untziaeren oso antzekoa izango da.

Juxtu langileei ordainketa etena ezarri behar zirenean, Wiron 1 itsasuntzia bezelako beste bat egiteko enkargua jaso dute Balenciaga enpresan.

Modelo bera izango denez, ez dute proiektua egin beharrik izango, neurri berdina izango ditu eta; honela, bestean baino diru etekin haundiagoa eskuratuko dute. Ea honen atzetik lan gehiago lortu eta aurrera egiteko modua duten. ■

Auto - Konponketak

ELKAR



PEUGEOT

Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

Edorta Jimenez eta Imanol Azkue sarituak

Epaimahaia lehengo abenduaren 15ean bildu zen Zumaiaiko Udaletxean eta aho batez erabaki zuen Julene Azpeitia VIII. ipuin lehiaketako lehenengo saria Edorta Jimenezek idatzitako **Akitaniatik datorren berba berria** ipuinari ematea. Era berean bigarrena Iñaki Perez-Armediak idatzitako **Lo dago, mesié** ipuinari eman zioten. Eta zumaiarrek aurkeztutako lan onenaren saria Imanol Azkuek idatzitako **Galdua pena** ipuinari.

Sari banaketarako ekitaldia, urtarrilaren **12an** egingo da, Foronda kultur etxean, arratsaldeko zazpitan. Saio honen hasieran Inaxio Tolosa **Tolok** emanaldira bat eskainiko du.

Ekitaldi honen barruan, aurreko urtean saritutako idazlanez osatutako liburua banatuko da bertaratzen direnen artean. Liburu honetan Jon Alonso, Felipe Juaristi eta Joseba Ossaren ipuinak biltzen dira. Zumaiar guztiak gonbidatuta zaudete ekitaldi interesgarri honetara. ■



Josebak Imanoli pasa dio txanda, baina bera ere ez da esku hutsik gelditu.

Joseba Ossak itzulpen lehiaketa bat irabazi du

Joseba Ossa izan da Jokin Zaitegi IX. Itzulpen Laburren Lehiaketako irabazlea, Xabier Artola donostiarrarekin batera. 150.000 pezeta jasoko du bakoitzak, lehen saria erdi-bana ematea erabaki baitzuen epaimahaia, bien lanek ere zuten kalitatea ikusita. Lehen ere irabazia zuen Josebak sari hau eta duela bi urte akzesit berezi bat eman zioten, 125.000 pezetakoa.


Sona handia duen lehiaketa da honako hau, eta 11 lan aurkeztu dira aurtengoan. 15 eta 30 orrialde bitarteko itzulpenak izan dira, edozein hizkuntzetik euskaratuak, gaztelaratik izan ezik.

Josebak Anthony Smith-en lan bat euskeratu du, ingelesetik, "Nazioen Europa ala Europako nazioa?" izenburua duena. Dagoeneko bi aldizkarik beren interes bizia agertu dute, testu hau beren orrialdetan argitara dadin. Zorionak, Joseba, eta segi lanean, beti bezain fin.

Koldo Landaluze eta Daniel Carballo, postalgile onenak

Koldo Landaluzek irabazi du Gu Ez Goaz talde antimilitaristak antolatutako lehiaketako lehen saria, hau da, 10.000 pezeta. Daniel Carballo izan da bigarren sariaren 5.000 pezetak poltsikoratu dituen.


Zorionak bioi sariengatik eta mezu antimilitarista hain bikain zabaltzeagatik. ■



Ur-gintza s

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082
78 Posta kutxa Fax: 148081
20740 IRAETA - ZESTOA



NIKOL-ENEAA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

Arre eta arre aritu arren ez zuten txerria mugitzerik lortu.



Gabon giroa kaleetan

Naximenduak bizitza hartu zuen, eta astoaren arrantzak entzutekoak ziren.



Institutuko neska-mutilak fin aritu ziren txistorra ogian sartu eta denon gosea asetzen.



bete eta umeak gustora. Eta dentistak ere bai.



Neska politikak, ahots eztiak, Erkibek antolatutako lehiaketan.



Gestoretakoek Olentzero hartu eta presoak gogoan izan zituzten



Gabon Koruak 1.194.000 pezeta bildu zituen



KALARI TABERNA JATE TXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAILA



JUSTA TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK

Erribera kalea 20

Turroiarekin batera, Unai ere etxera bueltatu da Gabonetan. Hemezortzi urte besterik ez zituela erabaki zuen zesta harturik putzu haundi hori gurutzatu eta Mexiko alde horretan suertea probatzea. Gauzak ondo joan zaizkio, baina Mexikoko ekonomia hain ondo ez dabilenez hangoa utzi egin du. Berehala deitu diote,

Unai Zinkunegi

ordea, Floridatik. Zerbaitegatik izango da. Bisatuaren zai dago Estatu Batuetara abiatzeko, baina Gabonetan ere ez pentsa geldi egon denik. Gernikan lagun batzuekin jokatu ondoren harra-patu degu bere etxean, eta putzuaz bestaldeko berri emateko eskatu diogu.

"Ameriketara joan nintzen ..."

NOLA BURURATU ZITZAIZUN ATLANTIKOA GURUTZATZEA?

Eskola bukatu nuen, Antonianotan ikasi nuen F.P., eta Mexikoko intendentea Markinara etorri zenean Enbil eta biok ikusi gintuen, eta kontratua eskeini zidanean joatea erabaki nuen. Orduan gainera Manu Mugerza han zegoen. Sei hilabete egon eta Gabonetan bueltatu nintzen. Gauzak ondo zihoazenez, aurrera segitzea erabaki nuen, eta ondoren urte oso bat egin det han.



Hango ruinak eta mendiak bixitatzeke astia izan du Unai.

"Hasieran kostatu egin zitzaidan moldatzea, profesionaltasunerako saltoa oso handia da eta"

ZER NOLAKO ESPERIENZIA IZAN DA?

Espierientzi ona izan da. Gauza asko ikasten dituzu: bakarrik bizitzen, eta beste gauza pila bat. Markinako beste puntista batzuekin egon naiz bizitzen pixu batean.

Mexikon astean 2 edo 3 partidu jolasten dira, gaez denak. Kontuan izan behar da hura 2.000 metrotik gora dagoela, eta ezin dira nahi adina partidu jokatu. Entrenatzea, mendira joatea libre izan degu. Tarteka Mexiko zentrorra joaten ginen, baina han trafikoa desastre bat da. 20 milioi biztanletik gora ditu hiriburuak eta kontaminazioa izugarria denez, askotan ez du kaletik ibiltzeko gogorik ematen. Baina zeozer mugitzen ginen.

AMERIKETARA JOAN NINTZEN XENTIMORIK GABE ...

Ez da hainbesterako. Lehen Mexikon oso ondo ordaintzen zuten. Orain moneta pila bat devaluatu da eta guri hango diruarekin ordaintzen zigitenez, askoz gutxiago kobratzen genuen azkenaldera, ia erdia. Jende denak aldegitea erabaki du eta orain bertakoak bakarrik geratu dira han. Ni joan nintzenez 40ko koadrotik 25-30 euskaldunak ginen. Denen



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Telefonoa: 861433
20750 ZUMAIA Fax: 861067

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen sendabidean

Amaiako plaza z/g Tif: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuademazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4
Telf - Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



Enbilekin aritu zen jokatzeko, Mexikora joan arte.

artean ni nintzen gazteena, 18 urterekin joan bainintzen hara.

EZ AL ZINEN GAZTEEGIA SALTO HORI EMATEKO?

Ezin nuen aukera pasatzen laga. Lehenago ere jaso nituen eskeintzak, baina ikasketak amaitu nahi nituen orduan. Gero ez nuen unibertsitatean ikasten segitzeko asmorik, eta nahiagoa izan nuen Mexikokoa probatzea. Ez naiz emandako pausoaz damutzen.

MEXIKON ERE KINIELAK JOKATZEN AL DIRA?

Han partiduak izaten dira. Kinielak hasieran jokatzeko dira, baina berotzeko bakarrik. Baina asko jeitsi da afizioa. Lehen topera egoten ziren frontoiak, baina azkenaldian dirua jokatzera zihoazenak bakarrik inguratzen ziren, 200 inguru.

PRESIO GOGORRA JASAN AL DEZU?

Hasierako 6 hilabetetan kosta egin zitzaidan moldatzea. Baina ez da

harritzekoa, profesionaltasunerako salto oso handia da eta. Jendea beti gainean daukazu: denetik esaten dizute, batez ere apostua egin dutenek, eta nerbioso jartzen zera, ... ohitu arte.

ZER BOTATZEN ZENUEN FALTAN MEXIKON?

Betikoa. Zumaia, lagunak, familia, ... Baina ohitu egiten zera. Bestalde, anaia eta lagunak etorri zitzaizkidan bixitan, eta horrek ilusioa egiten du. Gainera euskaldunon artean ere giro ezin hobea izan degu; afariak eta antzekoak ere egiten genituen han.

**"Urte t'erdian
maila asko hobetu
det, eta jokuan
dexente irabazi"**

ZER ASMO DITUZU ORAIN?

Oraintxe firmatu det urtebeteko kontratu bat, Tampara (Florida) joateko. Mexikon izan zen intendentea, eta ni eta beste bi hartu gintuen Floridara joateko. Han dena kinieletara jokatzeko da eta astean 9 funtzio izaten dira, goizez eta gauez. Lan askoz gehiago egin beharko det, baina aurrerapauso bat dela iruditzen zait.

INGELES MENPERATZEN AL DEZU?

Ezer ez. Mexikon ez det horrelako arazorik izan, baina orain Floridan ikasi egin beharko degu. Ondo etorriko zait, ordea.

**JOSEBA OSA
- ITZULPENAK -**

**EUSKARA-GAZTELERA-
KATALANA-INGELES-
FRANTSESA**

Tel / fax: 148065

ekin
ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1^a - Telf. 14 34 74
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

S
DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

**SUKALDEKO
ALTZARIAK**

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)



Tarteka hango euskaldunak biltzen dira, zerbait egiteko. Pixu bakoitzean ikurrina bat egoten omen da, zestarekin batera.

eskolan jende pila bat ari da jolasten, baina zaila da saltoa ematea, lan asko egin behar da. Gainera, hemengo frontoia pixka bat ikasteko ondo dago: erreboteatzen, eta antzekoak egiten. Baina gero frontoi haundietara joan beharra daukazu, eta inguruan ez dago bat bera ere.

"Ezin nuen aukera pasatzen laga, eta ez naiz emandako pausoaz damutzen"

ZER MODUZ DAGO ZESTA-PUNTA OROKORREAN?

Garai batean oso ondo funtzionatu zuen, baina gaur egun gaizki dago. 3 urte iraun zuen greba egon zen tartean eta honen ondoren frontoi dexente itxi dira. Hemen bertan enpresa bakarra dago, Eusko-Pilota, Gernikan. Elitekoak bakarrik dira enpresa honetan ondo kobratzen duten bakarrak; Katxin eta puntako este 10 puntista horiek oso ondo daude. Baina ikustera ere jende gutxi joaten da, eta esaten dutenez telebista eta publizitateagatik dago martxan enpresa.

ETA ZEURE ETORKIZUNA NOLA IKUSTEN DEZU?

Orain behintzat Floridako esperientzia probatu nahi det, ea zer moduz irteten den. Gustora baldin banago, aurrera, eta bestela hemen daukat etxea. ■

ZURE JOKUAN HOBEKUNTZARIK IGERRI AL DEZU?

Urte t'erdian maila asko hobetu det, jokuan dexente irabazi det. Jokalari onen artean asko ikasten da. Gauzak han dauden bezela edozein ez da joaten Floridara, han ere frontoi batzuk itxi egin dituzte eta. Suertea izan det, baina ez da kasualitatea izan.

DUELA 5 URTE ESPERO AL ZENUEN HORRELA IBILTZERIK?

Ke ba. 13 urterekin hartu nuen lehen aldiz zesta, futbolearen sartzen zeran bezela. 15 urterekin hasi ginen txapelketak jokatzen. Orduan Gotzon Enbilekin osatzen nuen bikotea; Euskadiko txapelketa irabazi genuen

eta Espainiakoan bigarren geratu ginen. Ni Mexikora joandakoan Alberdirekin jolasten hasi zen.

OSO FUERTE DABILTZA BIAK ERE ...

Asko pozten naiz egiten ari direnaz. Gotzonek leku guztietatik eduki ditu eskeintzak, Alberdik ez dakit. Ikasten segi nahi badute, onena Gernikan debutatzea dute, baina ez da hain erreza. Horrela segitzen badute gerora ere izango dute kanpora joateko aukera.

ZUMAIAKO ZESTA-PUNTAREN KASUA EZ AL DA HARRIGARRIA?

Bai, derrepentean irten ginen gainera: Beristain, Osa, Enbil, ... Orain

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



TITARE

Gehienbat kamixeta eta galtzetinak saltzen ditugu. Erropa jeneralian.

Zer da jendeak gehien erosten duena?



MANOLI

Goxokiak ikaragarri saltzen dira, Niño Jexuxen eskerako. Eta jostailuak ere asko.



ESSUS

Batez ere abenduko azken egunetan saltzen da gehiena, erregetarako. Neguko erropa: txandalak, polarrak. Azpeiti eta zestua aldeko jendea ere etortzen da.



JEMAR

Gabonetako gauzak: girnaldak, jaiotzak, loriak, ... Gehienbat emakumiak etortzen dira, hauek jartzen dituzte eta normalian naximenduak.



ARGIA

Igertzen da Gabonak direla, eta gehiena bakeruak saltzen dira. Era guztietako jendea etortzen da

Zer eskatu diezu Erregeei?



**Joseba
Jon
Gorka
Ander**

Baloia "Mikasa" markakoa, Martins-ak, Futboleko botak eta neska guapa bat



Maddi

K a ñ a
eta sorpresa



Yanire

Kotxe kapota,
erlojua, muñeka, gaztelua
eta telefono portatila.



Haritz

Olentzero patinak eskatu dizkiot, eta erregeei santxeski txiki bat eta deporteko poltsa.

GANBARA

TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

JUARISTI JATETXEA

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853


Hobetu al leike Baleike?

A zer galdera inuxentea, ezta? Horixe hobetu daitekeela. Eta zuetako zenbaitek bialdu dizkiguzuen inkestekin horretan ahaleginduko gera aurtengoan. Aspalditik genbiltzan zuen ideia eta proposamenak bildu nahian, eta jasotako inkesta bakoitzak urrea adina balio du. Bi orrialde hauetan jasotako informazioaren laburpentxo bat eta atera ditugun zenbait ondorio azaldu nahi genizkizueke.

Guztira 32 inkesta jaso ditugu, eta datu hauek "irakurle tipoa" ateratzea ezinezkoa bada ere, erantzun behintzat gazte jendeak erantzun du gehienbat, 16tik 30 urtera bitartekoak baitira ia denak, berdin gizonezko nahiz emakume. Inkesta bakarra iritsi zaigu anonimoa; bitako bat, edo ez zaizue axola izena jartzea edota Jesuskoan afaltzeko irrikitan zaudete.

Aldizkariari buruzko **iritzi orokorra** oso ona izan da, onegia. Baba dariola egon gera inkesta batzuk irakurtzean. Batek edo bestek Zumaian kultur mailan dagoen gauzarik aipagarriena dela ere aipatu digu.

Gehien gustatzen zaizkizuen atalak *Elkarrizketa*, *Erreportaia* eta *Ze berri?* dira, *Argazki zaharra* ahaztu gabe. Batez ere herriko



Harpidedumak alde batera utzita, salmentak ia bikoiztu egiten dira hasiera hartatik.

kontuak jakin eta herritarrak ezagutu nahi dituzuela jakinarazi diguzue.

Inkestaren emaitzik garrantzitsuena jaso degun proposamenen zerrenda izan da.

Atal gehienek ere puntuazio onak jaso dituzten arren, beharbada *Denborapasak*, *Merkatu Txikia* eta *Literatura* dira **gutxien** atsegin dituzuenak, zenbaitek esan diguzuen bezela ez beti gure erruz, zuen aldetik nahi bezainbat testu eta ohar jasotzen ez ditugulako ere izan daiteke eta. Zenbaiti *Komikia* ere kosta egiten zaio ulertzea, edota ez zaio asko gustatzen. Artea horrelakoa da, ezta?

Gehigarriak ateratzea oso ideia ona izan zela adierazi diguzue, eta batez ere AEK Egunari buruzkoa oso gustokoa izan zenutela argi dago. Lan handia ematen du horrelako zerbait ateratzeak, baina bereziki landu beharreko gairen bat ikusten badegu, berriz ere antzeko lanak egiten ahaleginduko gera.

Atal berriak jartzeko ere proposamen batzuk jaso ditugu. Adibidez, Gaztediari dagokionean unibertsitateari edota drogei buruzko zerbait jartzea, eskoletako haurrei ere tarte bat eskeintzea, zahar eta jubilatuen istorioak biltzea, liburuen kritikak egitea, herriko historiari buruzko lanak, mendi irteeren berri ematea, eta abar. Zenbat gauza ezta? Saiatuko gera zerbait egiten.

TXOKOA
T
B
E
R
N
A

Artadi Auzoa
86 21 89

Jesuskoa
Faltorea

Tfnoa 86 17 89 • Urdin Zumaia

KABI
TABERNA - ZUMAI
Tfnoa: 143379



Aldizkariaren **itxurari** buruz ez dago adostasun haundirik. Baleikek orain duen itxurarekin konforme da jendea, baina kolorezko gehigarri eta portadaren kontuan parez pare dago jendea, alde eta aurka.

Gazteen gaiak bereziki lantzea orokorrean oso ondo iruditzen zaio jendeari, eta **banaketari** buruzko kexarik ez degu jaso.

Bestalde, badirudi jendeak, inkesta erantzun dutenek behintzat, garrantzia ematen diola "produktua" ordaintzeari, gehienon ustez ez bailitzateke egokia izango dohain banatzea. Are eta gehiago, ia denak 200 pezeta ere ordaintzeko prest egongo lirateke.

Objetibotasunaren kontua alde batera utzita, inkesta batean esaten zen bezela ezer objetiborik ez dagoelako, Baleike **informatzaile ona** dela pentsatzen du jendeak. Orain, hobetu beharreko kontu batzuk aipatzen dizkiguzue: erreportaiak eta elkarrizketak sakonago lantzea, bestelako albiste batzuk ere sartzea, kirolak hobeto lantzea, e.a.

Erabiltzen degun **euskara** ulerterreza iruditzen zaizue ia denoi, eta pozten gera; baina erantzun

honetan tranpa egon daiteke, erantzule gehientsuenek lehendik ere euskaraz irakurtzeko ohitura badutelako.

Guk uste genuena baino jende gehiago fijatzen da **publizitatean**, eta pozten gera, urte t'erdi honetan hainbesteko laguntza eman diguten denda, taberna eta bestelakoek zeozer merezi dute eta.

Maiztasuna da azken puntuetako bat. Garbi dago hilean behin ateratzea iruditzen zaizuela egokiena, eta horrekin nahikoa dela uste dezue. Hamabostekaria nahi dezuenok pixka batean zai egon beharko dezue, horrek pauso izugarria ematea eskatzen baitu.

Proposamen ugari

Inkestaren emaitzik garrantzitsuena jaso degun **proposamenen zerrenda** izan da.

Zaila da denak aipatzea, baina adibidez elkarrizketarako honako izen hauek jaso ditugu: Barberito, Joseba Aristi, Pakita Porraja, Manoli, matrona, Joanito Dorronsoro, e.a. Emakume gutxitxo elkarrizketatzen ditugula ere esan digu batek baino gehiagok, batez ere *Motxian hi!* atalean. Aurten kontuan izango degu.

Erreportaiak egiteko ere gai ugari proposatu dituzue: auzoetako bizitza, langabezia, elkarte eta talde ezberdinak, baserriak, Zumaiako ezizenak, eta abar luze bat.

Guztiarekin, lehen genuen ikuspegia izugarri zabaldu zaigu, eta lanean jarraitzeko beste animo bat hartu degu. Eskerrik asko inkesta erantzun dezuen guztioi, eta gainontzekoei esan nahi genizueke urte guztian zehar zuen ideia, iritzi eta proposamenak jasotzeko gogoz gaudela. ■

Afaria Esti Morarentzat

Esti Mora izan da bi lagunentzako afariaren zozketan saria lortu duena. On egin!

Surf

Irteerak: 2
Tel. 93 50 24
ZARAUZ

Ertebera: 2g
Tel. 86 23 65
20750 ZUMAIA

ARRAIN ETA
MARISKOAK

7

BARAZKIAK
ETA
MARES
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

leize
TABERNA


Juan Belmonte, 6
Tel. 860415 ZUMAIA

Juan Belmonte 6
ZUMAIA


Tnoa: 860415

MONTH.


MONTE 1996




NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI NIKI



0. MONTH





Hilabete honetako sexualitate atalean, Luis Elberdin Askabide taldeko partaide den sexologoak Larraulen bildu ziren gure herritar batzuei eman zien lezioa dakarkizuegu.

Lehenik eta behin, esan behar da zitatutako ordurako puntual iritsi zela, eta ea zertara zeri buruz hitz egiteko deitu zitzaion galdetu zuen; eta denok mutu, ez zuen erantzunik jaso. Horrela, bere eskutan utzi genuen hitzaldiaren gaia.


Klitoriaren lezioa

Izotza puskatzeko, amodioa egiterako orduan gizonak emakumeari bere aurrean masturbatzeko eskatzea (eta alderantziz) ea zer iruditzen zitzaigun galdetu zigun, eta erantzun globala harridura izan zen. Honen ondoren sartu zen mamian.

Ar eta emeek plazerra lortzeko zer egiten duten galdetu zuen. Emakumezkoek bazekiten buztandunak nola masturbatzen diren, zein den beraien plazerrera heltzeko bidea. Baina mutilek uste okerra zuten emakumeekiko, beren ustez behatza edo beste zerbait sartzearekin asetzen baitira neskak. Hala, oker hau ikusita, neska baten laguntzaz esplikatu zigun Luisek nesken masturbatzeko modua.

Besteak plazerra lortzeko zer behar duen jakitea ezinbestekoa da

Honela, argi utzi zigun gizonezkoen ezjakintasun hau zela emakume askok amodioa egiterakoan plazerrik ez sentitzearen arrazoia.



Elberdin azalpenak ematen, bestea "Fumando espero ...".

Orain berriz ere badator lehengo galdera. *Zer deritzozue batak besteari bere aurrean masturbadadin eskatzea?* Eta oraingoan erantzuna baiezkoa izan zen. Eta hala da, zeren eta arazoa, besteak plazerra lor dezan zer behar duen ez jakitea da. Hemen aipatzen dena eskatuz gero arazoa gainditzen da, plazerra lortzeko zer egiten duen jakingo bailuke. Badakigu zenbaitentzat eskaera gogorra dela, baina gomendagarria da.

Kamasutra txikia

Amaitzeko, amodioa egiterakoan bikoteko bi partaideak gustora

geratzeko egoki diren bi postura aipatu zizkigun. Batetik, mutila buruz gora etzanda eta neska gainean, bere klitoria laztanduaz. Eta bestetik, lau hankako animaliek egiten duten eran; hau da, neska lau hankatan eta mutila atzean, neskaren klitoria neskak laztanduko lukeelarik.

Hau da gutxi gora-behera Elberdinen hitzaldi hark eman zuen guztia. Gustora geratu ginen hitzaldian parte hartu genuenak. Luisen berri gehiago izan nahi duzuenok Askabidera jo, edota ostiraletan Gazteginen tarteka idazten dituen artikulu interesgarriak patxadaz irakurri. ■



ZUMAI A



AUTO-ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAIA



inportaturiko erropa

eta artisautza

Basadi 3 Zumaia

Motxian hi!



Nor: *Inaxio Manterola*
Nola: *"Manta"*
Zer: *irakaslea*

Kontu-kontari

- Zure amtes goxoena?
Ostra dozena bat.
- Urte honetarako 3 desio
Jendea natuala bihurtzia bat; euri asko egitia, bestia; eta azkena beste urtebete bizitzia.
- Burusolla geratu ezkerer zer?
Banao. Ezer ez.
- Loteria tokatu ezkerer?
Terreno haundi bat erosiko nuke.
- Zer egingo zenuke ohe borobil batean?
Ba gauza asko.
- Zure aktore gustokoena zeln da?
Charlot eta Woody Allen.
- Norekin pasako zenuke zure ametsetako gaua?
Jende askokin.
- Trikitixa ala txunpa-txunpa?
Trikitrixa!
- Egin dizuten putadarik haundiena?
Prailetara eramatia.
- piropo bat
Hi haiz elementua!
- Bizio bat?
Tabakua.
- Aukeran zer lan egingo zenuke?
Egiten detena.
- Ikasleei botatako bronkarik xelebreena?
Zuek ez zeate sienporsien.
- Zenbat kate jarri dituzu orain artean?
Ez dakit.

ZOPA AUSARTA

Oikiako baserritar bat, Azpeitiko asteazkenetako perira jun zan. Bertan gelditu zan bazkaltzen eta jatetxe batera sartu eta menua eskatu zun: oilo-zopa eta xerra piperrekin. Atera zioten zopa hartzen ari zala, jatetxeko nagusia inguratu zitzaion kaso egitera, eta orduan baserritarrak galdetu zion:

- ¿Esta sopa es valiente?
- Querrás decir que está caliente -zuzendu zion nagusiak.
- He dicho VALIENTE, ya que de GALLINA no tiene nada - erantzun zion baserritarrak, haserre.

(Hementxe ba! aldizkaria, 21.zenbakia)



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
· 24 orduetan
· Zeure etxean
· Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK



- Enkoadernaketak
- Plastifikatseak
- Fax publikoa
- Bulegoko materiala

Basadi 14, behea - TIF 145120



Lau egun Larraulen

Herritar, eta batez ere gazte gehienok honez gero enteratuta egongo zaretenez, Zumaiaiko Gazte Batzordeak antolatuta, Larraulen egonaldi bat egin genuen joan den abenduaren 6tik 9ra bitartean. Aipatutako irteeran helburu nagusia, herriko gazteok elkarrekin egun batzuk pasatzea zen, bide batez geure arteko harremanak estutzeko aprobetxatuaz.

Egonaldi honetan hamalau lagun izan ginen, nahiz eta azken egunean bisita ugari izan genuen.

Irteera San Konstituzio arratsaldean egin genuen, eta hara iritsi eta egin genuen lehen gauza, norberak bere ohea atontzea izan zen. Ondoren, baserriko hainbat horma margotu genituen, eta lau egunetan lagun izan genuen, eta susto ugari eman zizkigun panpin beldurgarria izan genuen, eta esan behar da erditze oso gogorra izan zela.

Bukaerarako Argiñano baino sukaldari hobeak eginak geunden

Gauean istorio beldurgarriak izan genituen kontagai. Espirituak hemendik eta handik, kaka eginda egon ginen, harik eta Orioko festetara joanak ziren lau kalamidadeak etorri arte. Haiekin, eta batez ere haien kontura, nahiko parre egin genuen.

Ondorengo egunetan hainbat ekintza izan genituen, kirola barne. Ez pentsa egon besterik egin ez genuenik.

Luis Elberdin sexologoa geure artean izan genuen sexuari buruz zerbait erakutsi asmoz, baina kompetentzia egiten beste maixu bat izan zuen, eh Xebax?



Hori da hori, estiloa!.

Gauero espirituei egiten genien bixita, baina azkenerako gaiz aldatzen genuen, dodotisak aldatu ostean, noski. Gau batez



Gosaria bazkalorduan, bazkaria afalorduan, eta afaria?



**BASUSTA
ERRETEGIA**

M^o Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

ZALLA
Taberna - Erretea
**PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK**
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Galdona



burdindegia

Mendaro mariñela, 1
Juan Belmonte, 15
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861 330

20750
ZUMAIA
(Gipuzkoa)



Eneko, goxo-goxo bere pijama polarrarekin.

kantuan aritu ginen, eta hurrengoan berriz hainbat jolas egin genuen. Ez, ez. Ez dira zuek uste dituzuen jolasak.

Egunez berriz, egin beharretako bat, otorduak izan genituen. Bukaerarako Argiñano baino sukaldari hobeak egin ginen, eta bestela galdetu ostiralean bixitan etorri zitzaizkigunei. Ederra zegoen arrosa, ezta? Pixkat mazakotea baino, jan zitekeen, ezta? Eta zopa, barkatu, pure patata? Zer moduzkoa?

Kirola, diapositibak, ...

Ekintzetako beste bat "estufing"-a izan zen. Ez dakizula zer den? Ba begira, estufa bat ipintzen da, eta inguruan, korruan jarrita, jendea hotzak akatuta.

Futbolearen ere jokatu genuen. Eta pelotan, eta pinponean, eta diapositibak ikusi genituen (batzuek hainbesteko interesa zuten, ze



Gure maskotaren espiritua baserrian bueltan ibili zen.

begiak itxita ikusten zituztela), eta drogei buruzko hitzaldi bat; bai, hitzaldia bakarrik, izan genuen, eta... Ah, ia ahaztu zait, ama, estudiantu ere egin genuen. Bai, ama, zuk esanda bezela, asko asko.

Espirituak handik eta hemendik, kaka eginda egon ginen

Hau da hitz gutxitan esanda Larraulen egin genuena. Esan behar da gure nahiak bete zirela, hain zuzen ere, elkarrekin lau egun primeran pasa genituen, eta geure arteko harremanak estuagoak dira ordudanik. Besterik gabe agurtzen da Larraulgo korrespontsala, eta hurrengoan badakizu: animatu! ■



Estufing ekintzak izugarrizko arrakasta izan zuen.

ERROTA
ERROTA
 OPIL - OKINDEGIT
 Juan Belmonte, 39 - Tlf. 86 23 00
 Eribera, 2 - Tlf. 14 30 01
 ZUMAIA

AXIER KIROLAK
 Ortega y Gasset, 2
 ZUMAIA
 Telefonoa: 862206

ARGIA
 Izturun, 1 - Telf. 86 09 93
 ZUMAIA



AZKEN EMAITZAK

- INERNUPE 2 - KABI TABERNA 3**
AUTOS ZUMAIA 0 - XEMETAXIO 7
URBERU 5 - HIL TA PAKIA 5
IPURBELTZ 0- ZUMEA TABERNA 1
EVERIN 5- ZUMEA TABERNA 1
INERNUPE 1 - AGINAGALDE 8
LEIZE TABERNA 1 - XEMETAXIO 1
AGINAGALDE 6 - EVERIN 2
BUITRAKER 1 - KABI TABERNA 2

HURRENGO PARTIDUAK

URTARRILAK 6 LARUNBATA
11:30

IPURBELTZ - EVERIN
AGINAGALDE - BUITRAKER

URTARRILAK 7 IGANDEA
10:30

HIL TA PAKIA - XEMETAXIO
MENDI-ONDO - LEIZE
12:00

INERNUPE - ZUMEA TABERNA

URTARRILAK 20 LARUNBATA
11:00

AUTOS ZUMAIA - HIL TA PAKIA
URBERU - LEIZE

URTARRILAK 21 IGANDEA
10:00

AUTOS ZUMAIA - MENDI-ONDO
INERNUPE - EVERIN
11:30

BUITRAKER - ZUMEA
KABI - IPURBELTZ

Leize eta Aginagalde, puntaren puntan

Bi talde hauek dira orain artean jokaturako partiduetan indartsuen agertu direnak. Everin eta Xemetaxio ere ezin ditugu ahaztu, batez ere bigarrenekoak azkenaldian jokua hobetzen ari dira eta. Autos Zumaia eta Inerनुpek partidurik irabazi gabe jarraitzen dute.

Hil honetako partiduen ondoren, talde bakoitzeko lehen 4 taldek Liga izango dute jokoan; nahastu egingo dira taldeak eta 3 partiduko ligaxka bat jokaturako dute euren artean. Gainontzeko taldeek Kopa izango dute jokoan. Otsaileko zenbakian informazio gehiago emango dizuegu.



Aurtengoan ere irabaziko ote dute Aginagaldekoek?

A taldea

	Jol	Ira	Ber	Gal	Alg	Aug	Pun
Leize Taberna	3	2	1	0	14	1	7
Xemetaxio	4	2	1	1	16	7	7
Urberu Sagardotegia	4	1	2	1	16	18	5
Mendi-Ondo Elek.	3	1	1	1	14	14	4
Hil ta Pakia	3	1	1	1	12	13	4
Autos Zumaia	3	0	0	3	0	19	0

B taldea

	Jol	Ira	Ber	Gal	Alg	Aug	Pun
Aginagalde - Gerezi	5	4	1	0	27	10	13
Everin	4	3	0	1	16	9	9
Zumea Taberna	4	2	1	1	8	10	7
Kabi Taberna	5	2	0	3	11	17	6
Ipurbeltz - Gaztañaga	4	1	1	2	10	11	4
Buitraker	4	1	1	2	6	8	4
Inerनुpe	4	0	0	4	7	20	0

gooiy
HAUR JANTZIAK
Amaia plaza, 2/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDATEGIA
Iruñea Zubaitz bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

julio curiel
PELUQUERO
Erribera kalea
ZUMAIA

Igor Beristain Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelaldun



Igor Beristain, Gipuzkoako txapela buruan duela.

Sekulako lasterketa korritu ondoren, Igartua eta Mujikaren aurretik sartu eta karrera irabazteaz gain, Euskadiko txapela lortu zuen Igorrek abenduaren 30ean Altsasun. Hogei urte besterik ez dituenek, 23 urtez azpikoen txapela eman zioten Igorri, lasterketa irabazteagatik zeuden sariekin batera.

Inoiz lortu duen titulurik garrantzitsuena da eta pozez kabitzen ez zela zegoen gure herriko txirridularia. Oso forma onean sentitu zela aipatu zigun, eta karreraren bigarren zatia aurrean egin zuen bakarrik, lasai.

Lehenago 17an Andoaingo proba internazionalen 7. postuan sartu zen, eta horrela bere mailako Gipuzkoako txapela eskuratu zuen.

Proba honetan bertan Iker Ortiz kadete mailako txirridulari zumaiarra hirugarren postuan sailkatu zen, ondorioz brontzeko domina jaso zuelarik. Altsasuko lasterketan 6. postua lortu zuen Ikerrek eta Gaizka Gonzalez atzerago sartu zen.


Eduardo Ramos jubenilen mailan bederatzigarren sartu zen eta Eneko Beristain ere postu berean, baina 23 urtez azpikoen mailan. Oier Egañak ezin izan zuen parte hartu, gaixo baitzegoen.

Orain denak ere hil honen 14an Telleriarten jokatu den Espainiako Txapelketari begira daude, eta jarraian, beste lasterketa pare baten ondoren mundialak etorriko dira. Animo Igor eta konpainia, ea urte berria ondo hasten degun! ■

Gabonetako Futbol eta saskibaloitxapelketak



Bederatzi talde izan dira futboleant aritu direnak eta hamar, berriz, saskibaloian. Urtero bezela giro oso onean burutu dira txapelketak eta hil honen 4an jokatu ziren finaleko saioak.



Igor, argazkiko Oier eta denak ere oso maila ona erakusten ari dira.



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705


20750 ZUMAIA

Mendian ziur ibiltzeko, federa zaitez!

Urtero bezela, mendiko federatu txartela ateratzeko edota iazkoa berritzeko garaia heldu da. Mendian edozein istripu izateko arriskua dagoenez, komenigarria da beti ere ondo aseguraturuta egotea.

Zumaian Inda-Mendi M.B. elkarteak da txartel hau bideratzeaz arduratzen dena. Jakinarazi digunez epea zabalik dago dagoeneko eta nahikoa da nortasun agiriaren fotokopia eta ordaindu beharreko kopurua Foto Mertxera eramatea.

Abantaila ugari eskeintzen ditu federatu txartela ateratzeak. Mendiko ekintzetan izan daitezkeen arriskuak estaltzeaz gain, federazioarekin akordioa duten aterpeetan beherapen haundiak egiten dira eta federazioak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko aukera ematen du. Gainera Pyrenaica aldizkaria ere jasoko du federatu txartela eskuratzen duenak. Helduen txartelak, adibidez, 6.250 pezeta balio du. Argibide gehiago Foto Mertxen bertan emango dizute.



Mendi haundietan kontuz ibili beharra dago.

Arritxu Iribar



95ari errepassoa

95ak atea itxi du betirako eta honez gero, batek baino gehiagok 95 zenari, errepassoa eman dio. Zer moduzko urtea izan da amaitu berri hau, gure kirolarentzat?

Garbi dago, kirolari zumaiaarrak, batzuk beste batzuk baino laguntza gehiagoz, saiatu, gogotik saiatu direla aurtan ere. Betiko legez, emaitzak ez dira guztientzat onak izan, baina ahal dena eginez gero ez omen dago aitzakiarik!

Inolako zalantzarik gabe bi txapeldun handi eman dizkigu bere testamentuan hilberriak: Luis Mari Alberdi eta Gotzon Enbil. Munduko txapelketa tantu bakar batez galdu zuten, baina bi puntista hauek ederki mendekatu ziren Europako txapelketan, eta horrekin konforme ez eta estatuko txapela ere poltsikoratu zuten. Izen handia egiten ari diren bi izar hauen parean, piraguistak ere dirdirka ditugu. Urteak eta urteak daramatza Itxas-Gain elkarteak lanean, baina aurtengoa emaitzei dagokienez urte aparta izan da. Estatuko selekzioa hornitzeko ere gai izan dira zumaiaarrak! Halako batean, ea, benetan, piraguismoak lortzen duen zumaiaarron bedeinkazioa eta


jakiten dugun behar bezala baloratzen, eguna joan eta eguna etorri, hor egiten den lan eskergabea!

Ez ditugu beste kirolak ahaztu nahi, baina ulertzekoa da batzuk beren debordaldi erdi-erdian daudela: futbola, eskubaloia, saskibaloia ... Beste batzuk unerik gogorrean, ziklo-krosa horren lekuko. Txapelketak txapelketen gainean eta Igor Beristain, Oier Egaña eta konpainiak beste lasterketetan Euskal Herrian punta-puntakoak direla erakutsi ondoren, txapelketetan hori horrela dela baieztatzen saiatuko dira.

Arraunean 96a prestatzen ditugu, Kontxarako eta euskal ligarako klasifikatu ahal izateko (neguan irabazten omen dira estropadak!). Hala ere aurtan, begiz zeharka neskak zaindu beharko ditugu. Kolore gorria han eta hemen defendituko dute, orain arte ez-ofizialki lortutakoa ofizialki ere lortzeko.

Zalantza izpirik gabe zumaiaarrok baikor begira diezaiokegu 96 jaio berriari, baina ez gaitzala zezanak harrapa ... (hiru hilabete baino gutxiago falta dira herri kroserako, norberak atera ditzala kontuak!)

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnua: 861160
ZUMAIA

Belardenda
Paki
OSASUN NATURALA



erribera 2
Tlf: 143156

ONCE
ONCE


**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**


ZORTE ON !!

Energiaren indarra

Egun hauetan zehar Oxford-eko aretoa bihurtu da Zumaian energia gehien biltzen duen gunea. Zergatik? Hantxe topa ditzakegulako burura datozkigun energia mota guztiak eta gehiago ere bai.

Lehengo hilaren 30ean ireki zuten erakusketa Natur Taldeko lagunek eta urtarrilaren 14ra bitartean egongo da zabalik, betiko ordutegietan. 8tik 12ra, astegunez, itxita egongo da erakusketa, baina tarte honetan herriko eskoletako neska-mutilak izango dira energiaren nondik-norakoak ezagutzeko aukera izango dutenak.

Erakusketarekin batera bestelako ekintza batzuk ere antolatu dira; hauen artean da **IRTEERA** bat egon da, nahi zuten guztiek hil honen 3an Biogas planta bat ezagutzeko



modua izan baitute, San Markos Mankomunitatekoak hain zuzen ere.


Energia da, bai, erakusketa honen ardatza, eta alderdi ezberdinetatik aztertu nahi izan da. Batetik orain artean gehien erabili direnak ikusi dira: hidroelektrikoa, nuklearra eta termikoa, adibidez. Bestetik energia alternatiboen

ezaugarriak eman dira aditzera, nola bultzatu behar diren jakinarazteko: haize bidezkoa (eolikoa), eguzkiarena, mareak aprobetxatzea, energia geotermikoa edota biogasa, hau da, materia organikoaren energia.

Guzti hau era atsegin batean azaltzeko panelak erabili dira batez ere. Baina bestelako muntaiak ere jarri dira: maketak, dinamo baten funtzionamendua, bideoak e.a.

Beste era bateko informazioa ere ematen saiatu dira Natur Taldekoak; adibidez, energia nola aurreztu daitekeen, edota argiaren faktura nola interpretatu behar den.

Erakusketa dagoeneko ikusi badezu, ondo jakingo dezu zer zegoen bertan. Oraindik ez bazera azaldu, pazientziaz bixitatxo bat egitera gonbidatzen zaitugu. Ea hurrengo urtean ere beste horrenbeste ikasteko aukera degun! ■



SOLOZABAL AUTOESKOLA



P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416


Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAIA




ZINE FORUM SAIORIK EZ

Abenduaren 28an izan zen 1995eko azken zine forum saioa, eta oraingoz behintzat ez du beste pelikularik ekarriko. Bazirudien udalaren kezka nagusia eginkizun sozial eta kultural bat betetzea zela, eta hasiera batean prest agertu zen diru-galtzeak ordaintzeko; baina itxura denez saio hauek sortutako galerak handiegia dira Zumaiako Udalarentzat. Ondorioz, Zumaiako zine-forum saiorik gabe geratzen da oraingoz. Hala ere, Ostarrena zine-forum taldea irtenbidea bilatzen saiatuko da, adibidez 16 milimetroko proiektorearekin.

FOTOTEKAREN OHARRA



Gabonak aldean Oxford-en ikusi ahal izan zenuten bezela, Zumaiako eta zumaiarren argazki paregabeak daude hortik zehar. Zuk dituzun argazki horiek ere gustora hartuko genizkizuke, kopia bana atera eta berehala bueltatzeko. Forondan izango gaituzu.



IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta goza itzazu ahal dezun neurrian


Euskaraz

Bakean utzi arte
Hiltzailea euripean
Ele neumatikoak
Auskalo, Luk
Lau zaldun
Piztiaren izena
Hnuy illa nyha majah yahoo
Hamaika pauso
Miopeak, (...)
Badena dena da
Otto Pette

Itxaro Borda
Raymond Chandler
Jose Maria Larrea
Luis Haranburu-Altuna
Joxemari Iturralde
Andu Lertxundi
J. Sarrionaindia
Ramon Saizarbitoria
J. Sarrionaindia
Patxi Zabaleta
Andu Lertxundi

Gazteleraz

Cuentos completos 1949-1969
La flor de mi secreto
Cuentos de futbol
La isla del día de antes
Diatriba de amor (...)
Mensaka
La piel del tambor
Los puentes de Madison County
Trenes nocturnos
Espías
En propia mano



Ignacio Aldecoa
Pedro Almodovar
Askoren artean
Umberto Eco
G. García Márquez
Jose Angel Mañas
A. Perez-Reverte
Robert J. Waller
Barbara Wood
Fernando Rueda
Antonio Gala



AIZPURUA

LIBRUDEN
OPARIAK

Aita-Mari Anzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAILA



ERTZ INFORMATIKA

Mendaro Martñela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKako Denda

-ORDENAGAILU P.C
-INPRIMAGAILU
-CD-ROM
-KRISTALEZKO PANTAILAK
-DISKETTEK

12

JULENE AZPEITIA SARIEN BANAKETA

Arratsaldeko 7etan hasita, VIII. edizioa bete duen ipuin lehiaketa honetako saiak banatuko dira. **Inaxio Tolosak** emanalditxo bat eskeiniko du eta amaieran iazko irabazleen ipuinak biltzen dituen liburua banatuko da bertaritzen direnen artean.



HITANO IKASTAROA

Zumaiako Udaleko Hezkuntza eta Euskara Batzordeak hika hitz egiten ikasteko ikastaroa antolatu du. Josefran Ispizua izango da irakaslea, eta egunak ere zehaztu dira; ikastaroa **urtarrilaren 13, 20 eta 27an** izango da, **goizeko 10etatik**

12,30etara, Foronda kultur etxean.


Hika hitz egiteko zailtasunak badituzu edo hobeto ikasi nahi izanez gero, animatu eta eman ezazu izena lehenbailehen Udaletxeko Euskara zerbitzura deituz (860250 telefono zenbakira).

Natur Jardunaldiak
ERAKUSKETA
"Energia"

OXFORDen
8tik 12ra eskoletako bixitak
5, 6, 7, 13 eta 14an guztiontzako zabalik


26 Txotxongiloak

Aita Mari zineman, gaueko 10etan Bergarako TAUN-TAUN taldeak "Makinatu" obra eskeiniko du. Sarrera: 500 pezeta.



Ikastaroak

PINTURA IKASTAROA



Urtarrilean hasi eta apirila bitartean emango da kultur etxean ikastaro interesgarri hau. Ikastaroa 60 ordukoa izango da, astean bi egunetan bakoitzean bi ordu izango dira, eta teknika ezberdinak landuko dira: akuarela, oleoa, tenpera, e.a.

Ikastaro osorako matrikula 5.000 pezetako da, eta materiala norberak eraman beharko du. Antolaketa bilera urtarrilaren 10ean izango da, arratsaldeko 7etan Forondan, eta orduantxe itxiko da izena emateko epea.

BOLILLOS

Jende asko apuntatu zenez, bi txanda egitea erabaki zen eta urtarrilaren 11n arratsaldeko 3retan hasiko da lanean ikastaro honetako bigarren taldea. Izena emateko epea bukatu da, baina argibide gehiago Forondan emango dizkizute, 861056 telefonoan.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefonoa: 861485
Fax: 143143

EGUZKI
PUB
HOTEL
BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI
supermerkatua

Urumea kalea z/g
Zumaia

Kontuz, Deabruak Teilatuetan!

Tolosar hauek duela urte t'erdi ere gure orrialdeetan agertu ziren, *Endreduan* maketa aurkeztu zutenean. Orain, lan luze bat eskutan dutela, beste era batera ikusten ditugu.

"Hitz egin" kontzertu famatu hartan ere izan genituen, eta jende askok orduan izan zuen talde "berri" hau ezagutzeko aukera. Izan ere, *Esan Ozenki* disketxea izan da behean komentatzen degun diska argitara eman duena. Talde honen aldeko apostu garbia egin du disketxeak, gaur egun ez baita batere erreza ezaguna ez den talde baten diskak saltzea. Durangon ere ikusi

genituen, beren produktua saltzen, eta badirudi gauzak ez doazkiela hain gaizki.

Euskaldunon Egunkariaren aldeko festan ere han izan ziren, Exkixu eta DUTekin batera. Kontzertu haundietan jotzen hasi dira, baina lehengo filosofiari eutsi nahi diotela aitortu digute.

Abenduan hasi ziren, eta bi hilabeteko epean beren diska hantxak aurkeztzen arituko dira, Itsumutugor Bira txikian. Dozena kontzertutik gora egingo dituzte, ia denak gaztetxe, taberna edota lokal txikietan, Zumaian Oxford-en egin zuten moduan.

Deabruak gure etxera sartzen utzi ditugu. **Itsumutugor** izenarekin jantzi duten diska honek hamabi kanta biltzen ditu, batzuk berriak, beste batzuk lehengoak eta baita bertsio bat ere, Mak talde desagertuaren "Opor guztietako zalantza". Tolosako lehena lanaren aurrean gaude; Esan Ozenkirentzako grabatu dute aurrean Iz estudioetan, eta ekoizketa lanak Kaki Arkarazoren kontu joan dira. Bertan laguntzen Eduardo "The Window Ventanas" eta Joxi Ubeda "Ex Anima-Vili" izan dira tarteka, beste batzuen artean. Hard-core doinutan mugitzen badira ere, Deabruak baxuari garrantzi



Ez doaz itsu-itsuan, puxka batean ez dute mutu geratzeko asmorik, eta gorak ere dantzan jartzeko moduko musika eskeintzen dute. Joni (kitarra), Imanol (baxua), Haritz (abeslaria) eta Iñigo (bateria) ez dira teilatuepean luzaroan egongo, eta gauero legez, deabrutxo hauek gaizto izan nahi duten horien etxetara abiatuko dira.



haundia ematen diote eta oso melodikoa suertatzen da beraien musika. Hitzak euskeraz datoz eta amodioa, gizartea edota gauza pertsonalei heltzen diete; adibidez "Bi itzal" Lasa eta Zabalari eskeinitako kanta bat degu. Badago baita ere hamahirugarren kanta bat, aurkeztzen ez dutena, erregalo modura dator-kigulako. Hau, Tolosako Galtzaundi euskara taldeak kaleratu zuen Martxaundi maketan Deabruak eskeintzen ziguten "Collage" balada degu, oso polita. Beraz, zuen anima deabruari saltzera gonbidatzen zaituztegu.

KOSTA  GAS

GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Haritz, txuletatik kantatzeak ez dik balio!



Oxford inpermu bihurtu zen ordubeteko tartean.



Giro bikaina Oxford-en

Rock kontzertuetarako ere, denerako bezela, areto aproposa dela frogatuz, 150 lagunetik gora bildu ziren abenduaren hasieran, 6 neman 9 eta Deabruak Teilatuetan taldeak ikusi eta entzüttera. Ea 96ak zer kontzertu eskeintzen dizkigun !



Elgoibartarrek ez zioten publikoari bizkarra eman; argazkikoa salto txiki bat besterik ez da.



Bukaeran Batmanek salbatu gintuen deabruen atzaparretatik.

IHINTZA
taberna

Tlf: 860472
Ortega y Gasset, 3

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 85
Fax. 43 06 37

ZEMAR


LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK

HAZIAK
ZERAMIKAK

T. Telefonon: 860375
20750 ZUMAIA

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1. Defentsarako eraikuntza. 8. Elbarria. 15. Argala. 16. Arma astun. 17. Kontsonantea. 18. Erotuak. 20. Frantziako ibaia. 22. Garbiak. 23. Noka, naiz. 24. Iridioa. 25. Musika nota. 26. Arabako alderdi espainiarra. 27. Xehakatu. 29. Fruitu mota. 31. Juntagailua. 33. Barre. 35. Mingaina. 36. Guregana. 38. Suari dario. 40. Iratzea. 41. Bokala. 42. Natura. 44. Molibdenoa. 46. Zero. 47. Azkeneko letra. 48. Baieztatzeko. 49. Lehen eta azkenekoa. 50. Zuberoko herria. 52. Bokal errepikatua. 53. Eguzkia hartzeko tokia. 56. Imajina. 58. Kanpo. 59. Nafarroako kolegiata ospetsua. 61. Asiako estatua. 62. Zapata konpontzailea. 64. Hegazi mota.

GOITIK BEHERA: 1. Jendetasun. 2. Ahora eraman. 3. Zaude. 4. Harreman. 5. Polizia autoktonoa. 6. Zelaia. 7. Uranioa. 8. Bizkaiko herria. 9. Baztango herria. 10. Kimatu. 11. Edonor. 12. Esaten du. 13. Bokala. 14. Bitsa. 16. Kontsonante bikoitza. 19. Ahuntzaren arra. 21. Nuená, hiri. 23. Har ezan. 28. Toka eta noka. 30. Eguraldi. 32. Beharbada. 34. Detektagailua. 35. Barnekalde. 37. Gai kimikoa. 39. Bokala. 43. Belaunaren gainean. 45. Gari. 47. Jagolea. 48. Jaurti. 50. Utzi. 51. Birrindutako gari. 52. Landareen zati. 53. Bizkaieraz, haiz. 54. Ardi, hitz elkarreketan. 55. Gipuzkeraz, zain. 57. Itsasoko likidoa. 60. Bokala. 63. Fosforoa. 64. Bokala.

Umorea ————— Mattinek Irutxulon (81. zkia)



mlki



**ADI! ADI!
DENDARI, TABERNARI ZAREN HORI!**

Zure denda, taberna edota lanbidearen publizitatea egiteko oso bide egokia dezu aldizkari hau: 800 ale, 2.000 irakurletik gora, nahi dezun neurri eta itxurako iragarkia, ...

Neurri honetako modulu bakoitzaren prezioa:

**Hilabete bat:
1.400 pezeta**

**Urte guztia (11):
13.400 pezeta**

**Forondara deitu,
enkargoa utzi eta
pasako gera
argibide gehiago
ematera.
Eskerrik asko!!**



Nerea Unanue eta Igone Korta izan dira gure lehen zenbakiko portadan oinarrituta, egutegia prestatu digutenak. Oraindik ez badezu eskuratu, Baleikeko norbaiti edo Forondan eskatu. Eskerrik asko bioi ere.

OHARRAK

Lokal bat hartuko nuke, errentan, bertan lana egiteko. Berdin zait poligono aldean izan da ere, baina ez dadila oso garestia izan. Tfnoa: 860569

Joxan, oraingo honetan iten ez badek hobe dek moztia.

Xeastian ...

Joxan: ez itzak puntu guztiak galdu, plaierotako beharko dituk eta.

Eskolastika ...

Joxan, ze mouz txistu berriakin? Bate soiñuik ateatzen al diok? Probatu zak txo!

Ti-ti-ri-ti-ti ...

Ta taka tabara ta bat unkataka ... Aupa ta! Inbitau jun aurretik.

AGURRAK

Alazne, gu betiko moduan. Batzuk ezkondu eta beste batzuk parrandatik parranda. Kuadrillakoak.

Alazne: urtiak jun, urtiak etorri goguan zaitugu. Kuadrilla.

Pertsona bat zera, eta hori gutxi al da?

Batxupa: poteo potentia Nuntxupan zorionetan.

Beltza: angula gutxio eta txoakei gehio.

SALEROSKETAK

Macintosh ordenadore bat salgai daukat. Pantaila koloretan du eta inpresora eta guzti eskaintzen dizut. Deitu 148065 telefonora.

Salmenta puntuak

- Jesuskoa
- Errota (Erribera)
- Errota (Basadi)
- Errota (Juan Belmonte)
- Ogi Berri (Amaiako plaza)
- Ogi Berri (Basadi)
- Arkupe okindegia
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Loitz liburudenda
- Alai janaridenda
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia
- Foto Gar
- Arroa Beheko estankoa

Baleikeren atzeratutako zenbakiak FORONDAN eska ditzakezu, 16. zenbakia izan ezik, hau agortuta baitago.

Striptease Vigoko plazan

Striptease nocturno en la plaza de la Constitución

Espectáculo en toda regla en la plaza de la Constitución la noche del pasado sábado. Cánticos hasta altas horas de la madrugada y el consiguiente vecino cabreado por no poder dormir que llama a la Policía. Al cabo de un rato se ve asustar el morro a un coche patrulla en la plaza. Los agentes al ver el mogollón de juerguistas optan por dar marcha atrás y hacer sitio por el foro.

La fiesta no terminó ahí. Además de la valentía demostrada por los agentes del orden al mando del superintendente Montero, los alborotadores, que al parecer eran marineros de la flota bonitera vasca que están estos días descargando en Vigo, hicieron el número final al estilo de aquel primer programa de Ángel Casas en TVE. Así que, ni cortos ni percosos un cuarteto se subió al palco de las fiestas del magosto y realizó un striptease total. ¡Con el frío que hay!



JUAN DE ALMEIDA

Faro de Vigotik jaso degu albistea. Han zebiltzan arrantzale euskaldun denak kantari ordu txikitán, polizia beldurtuta, eta bukaeran striptease totala, izugarritzko hotza egin arren. Zumaiarrak ere han inguruan omen ziren. Eh Joxe Mari?

Zorionak Arritxu!



1995a agurtzera gindoazela, San Silbestre lasterketa korritzea bururatu zitzaion norbaiti, baina kotxean sartuta eta ospitalera bidean; presa gogorra zuen zortziki horrek! Egun bat lehenago bide bera egin zuten Argi eta Josuk, eta saria ez zen makala izan: Maddi. Herri honetan ez da oraingoz umerik faltako! Zorionak denoi!

L

ehiaketa Goxoa



Bertsolari fina bata, saltakalari trebea bestea, gutxienez bietako baten izena asmatzen dezuenen artean **Txapartegi Gozotegiak** emandako tarta eder bat zozketatuko degu. Horretarako **urtarrilaren 19a** baino lehen utzi beharko dezu erantzuna, sobre batean sartuta Foronda, ONCEko kabina, Foto Mertxe, Aizpurua liburudendan edota Txapartegin bertan. Zorte on!

80 erantzunetik gora jaso genituen aurrekoan, errekorra hautsiaz. Garbi dago **Metroko Juli** oso ezaguna dela. San Juan Egoitzakoak gogotik saiatu ziren, eta bertako **Ildefonso Elosuari** egokitu zitzaion tarta erraldoia. Argazkian Juli eta biak, baina gainontzekoak ere ez ziren haserre!



H arpidetzak - 96



Baleike!!

1996 urte guztian gure aldizkaria etxean jaso nahi badezu, oraintxe daukazu aukera. Prezioak ez du igoerarik izango eta urte osoko zenbakiengatik **1.000** pezeta bakarrik ordaindu beharko dira. Postaz bidaltzea gehiago kostatzen denez, kanpoan bizi diren harpidedunei, ordea, gehixeago eskatzen diegu, **1.500** pezeta hain zuzen ere.

Harpidetza berria egiteko nahikoa da sobre batean izen-abizen, helbide eta telefonoarekin batera diru kopuru hori betiko tokietako batean uztea. Lehengoa berritzeko izen-abizenekin nahikoa da, eta beste aukera bat dirua

Euskadiko Kutzako 0371041244 kontu zenbakian sartzea da.